

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 462/2020 Erabakia, urriaren 13koa. Onespena ematea "BONO DENDA" programari, ondasunak erosteko Arabako Lurralde Historikoko txikizkako establezimenduetan

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eskumen dira, besteak beste, denden kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzea eta merkataritza sektorea sendotzea.

Arabako Foru Aldundiak Ekonomia Berreskuratzeko Plana jarri du abian, COVID-19ak gure ekonomian sortarazten dituen ondorioak arintzeko. Plan horren barruan, merkataritza sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko bonu ekimen bat garatzea aurreikusi da, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

"Euskadi Bono Denda" programa Eusko Jaurlaritzak abiarazitako jarduera bat da, herritarrei ondasunak eskuratzen laguntzeko, txikizkako merkataritza sektoreko enpresaburu autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak indartzeko, herritarrei eta sektoreko enpresa sareari laguntzeko, eskaria suspertzeko, merkataritza jarduera dinamizatzeko tokiko eta eskualdeko eremuan duten eragina sustatuz eta saltegien maniobra funtsa hobetzeko. Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzak 370.0000 bonurekin abiarazi du kanpaina; horietatik 45.880 Arabako Lurralde Historikoari dagozkio. Deskontu bonu horiek 10 eurokoak dira, 30 eurotik gorako erosketetarako.

Arabako Foru Aldundiak bere lurraldeko establezimenduentzako bonu erabilgarrien kopurua handitzea aurreikusi du, 28.128 bonu gehigarriekin, Euskadiko administrazioek "Euskadi Bono Denda" kudeatzeko adostutako jarduera protokolo orokorrari jarraituz.

Deskontu bonuak jaulkitzeko eta trukatzeko eragiketak kudeatzeko, eta, oro har, programa-ekin bat egiten duten establezimenduekiko harremana antolatzeko –zeharkako laguntzaileak eta onuradunak ere bai–, nahitaezkoa da erakunde baten lankidetzaz izatea, honako eginkizun hauek egingo dituenak:

– Kanpainaren kudeaketan laguntzea, parte hartzen duten establezimenduekin harremanetan jartzeko bidea izatea haien atxikimendua artikulatzeko, eta haren ondorioz hartutako konpromisoak behar bezala garatzen direla kontrolatzea.

– Funtsen gordailuzain eta banatzaile izatea, deskontu bonuak banatzeko eta saltzeko eragiketak koordinatuz eta erabilitako deskontu bonuen trukaketa eginez hobaridun salerosketa eragiketetan.

Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak programa horren kudeaketan eraginkortasuna bermatzen du, oinarri hartuta zuzenbide publikoko korporazioaren izaera juridikoa duela, autonomoen, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) solaskide pribilegiatua dela, baliabide materialen eta giza baliabideen egitura eta eskuragarritasuna duela, eta funts publikoen kudeaketan duen esperientzia.

Horretarako, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea aurreikusi da, erakunde laguntzaile denez, Arabako Lurralde Historikoko merkataritza sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko xedearekin.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe hartu den

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Saltegi Bonua programaren araudia txikizkako merkataritza establezimenduetan ondasunak erosteko deskontu bonuen bidez. Bonu horiekin, onuradunek ondasunak merkeago erosi ahal izango dituzte, I. eranskinean zehazten den bezala, 281.280,00 euroko gehieneko zuzkidurarekin.

Bigarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuaren 30.5.02.3601.480.00.01 (zorpekin erreferentzia: 105.3544/000) partidaren kontura egingo da, aplikatu beharreko deskontuak ordaintzeko eta atxikitako establezimenduen artean banatzeko funtsen gordailu gisa.

Hirugarrena. Ordaintzeko era: Arabako Merkataritza eta Industria Ganberaren kontuan egingo da gordailua, honela:

– Kudeatu beharreko laguntzen funtsen zenbatekoaren ehuneko 90 (253.152,00 euro) hitzarmena sinatu eta hurrengo hogeiei egunen barruan sartuko da.

– Gainerako ehuneko 10a programa garatu ahala eta programa amaitu aurretik sartuko da, aplikatzen diren deskontudun salmenta eragiketen arabera.

Saltegi bonuen azken likidazioaren txosten-memoria Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak aurkeztuko dio Arabako Foru Aldundiari, 2021eko urtarrilaren 29a baino lehen, eta programaren kontabilitate balantzea jasoko du: trukaturako deskontu bonuen kopuruari buruzko informazioa, udalerrien eta JEZaren epigrafeen arabera berezita, bai eta onuradunen kopurua ere.

Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera funtsen gordailuzaina eta banatzailea izango da, deskontu bonuak banatzeko eta saltzeko eragiketak koordinatuz eta erabilitako deskontu bonuen trukaketa eginez salerosketa eragiketetan. Zenbateko hori agortzen ez bada, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak dagokion zenbatekoa itzuliko du.

Ez da eskatzen dirulaguntza jasotzen duen erakundeak bermea jartzerik, bere izaera kontuan izanik, berme osoa eskaintzen baitu.

Laugarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera doan II. Eranskinaren edukia haren barruan jasoz.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, programa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

I. ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO MERKATARITZA SEKTOREKO ESTABLEZIMENDUETAN KONTSUMOA SUSTATZEKO SALTEGI BONUA PROGRAMA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

1. artikulua. Xedea

1.1. Programa horren xedea da txikizkako establezimenduetan ondasunen kontsumoa sustatzea, Arabako Lurralde Historikoko enpresaburu autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txikiek gauzatuta.

1.2. Araudi honetan aipatzen diren saltegi bonuek handitu egiten dute Eusko Jaurlaritzak Arabako Lurralde Historikoan Euskadi Bono Denda ekimenean jarritako bonuen kopurua, eta Euskadiko administrazioek bonu hori kudeatzeko adostutako jarduera protokolo orokorrari jarraitzen diote.

2. artikulua. Kanpainaren helburuak

1. Txikizkako merkataritza sektoreko enpresaburu autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak indartzen laguntzea.

2. Herritarrei eta merkataritza sektoreak oinarri duen enpresa sareari laguntzea, eskaria sustatuz.

3. Merkataritza jarduera dinamizatzea, herrietan eta eskualdeetan eragina izateko sustapena eginez.

4. Merkataritzako establezimenduen maniobra funtsa hobetzea.

5. COVID-19aren pandemia dela eta alarma egoera deklaratzearen ondorioz merkataritza enpresa jakin batzuen jarduera aldi baterako etetearen kalte ekonomikoa arintzea.

3. artikulua. Baliabide ekonomikoak eta aurrekontu egozpena

Eman beharreko laguntzen zenbateko osoa 281.280,00 euro da, 2020ko aurrekontuko 30.5.02.3601.480.00.01 aurrekontu partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105/3544/000).

4. artikulua. Erakunde laguntzailea

Bonuak trukatzu eta salmenta eragiketa bakoitzaren baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatuz banatuko dira diruz lagundu daitezkeen funtsak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberaren lankidetzarekin, erakunde laguntzailea baita.

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 15. artikuluan xedatzen duenaren arabera, erakunde laguntzaileek lankidetzaren hitzarmena sinatu behar dute Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailarekin (laguntzak ematen dituen organoa denez gero), beren gain hartzen dituzten baldintzak eta betebeharrak arautzeko bertan.

Erakunde laguntzaileak programaren kudeaketa eta gauzatzea kontrolatuko du, eta, horretarako, besteak beste, programari atxikitako saltegiak eta hobaridun salerosketa bakoitzaren betekizunak betetzeari buruzko datuak egiaztatu eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari eskuratuko dizkio.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduera

1. Kanpainari atxikitako Arabako Lurralde Historikoko txikizkako saltegiengan ondasunak erosteko dirulaguntzak emango dira, horietan eskuragarri dagoen deskontu bonu bakar baten bidez.

2. Saltegi bonu horietako bakoitza deskontu bonutzat hartuko da, eta atxikitako establezimenduetan gutxienez 30 euroko erosketa egitean, 10 euroko balioa izango du. Establezimenduek bere aplikatuko dituzte deskontu bonuak, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direla egiaztatu eta ondasunak erosteko unean onuradunak identifikatu ondoren. Horretarako, erakunde laguntzaileak atal honetan adierazitakoa bermatzeko eta egiaztatzeko behar diren baliabideak jarriko ditu.

3. Pertsona bakoitzak gehienez lau deskontu bonu batu ahal izango ditu, berrogei euroko balioarekin. Hobari deskontu horiek hainbat establezimendutan edo establezimendu bakar batean erabili ahal izango ditu onuradun bakoitzak.

Gehieneko muga horrek pertsona bakoitzeko Euskadi Bono Denda programako bonu guztiak hartuko ditu barne, aplikatutako funtsak programan parte hartzen duten hainbat erakunderenak izan ala ez.

4. Saltegiek pertsona fisiko onuradunaren datuekin beteko dute bonua. Pertsona bakoitzeko 4 bonuko muga kontrolatzeko balioko dute, eta erosketaren ordainagiriaren kopia bat erantsiko dute.

5. Saltegiek ezin izango dituzte bonuak erreserbatu edo atxiki bezeroentzat.

6. Salmenta hobaridunak izango dira programa indarrean jartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean egiten direnak.

6. artikulua. Dirulaguntzen izaera

Programa horren esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

7. artikulua. Laguntzen kudeaketaren organo arduraduna

Laguntzak kudeatzeko organo arduraduna Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza izango da, eta hari dagokio programa behar bezala gauzatzen dela gainbegiratzeko eta kontrolatzeko jarduerak garatzea.

Arabako Merkataritza eta Industria Ganberaren lankidetzarekin egingo dira programa horren kudeaketa lanak eta diruz lagun daitezkeen funtsen banaketa.

Programa horri esleitutako funts publikoak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- a) Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- b) Administrazio emaileak ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.
- c) Eraginkortasuna baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

8. artikulua. Onuradunak

Laguntza horien onuradun izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 18 urtetik gorako pertsona fisikoak, Arabako Lurralde Historikoko saltegieta banatutako Saltegi Bonuak eskuratzen badituzte, araudi honetan ezarritako bitartekoen eta bideen arabera.

9. artikulua. Deskontu bonuak aplika ditzaketen establezimenduen betekizunak

1. Araudi honetako deskontu bonuak aplika ditzaketen establezimenduek Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egon behar dute, Euskadi Bono Comercio / Euskadi Bono Denda programari atxiki behar zaizkio eta betekizun hauek bete:

a) Jardueraren xede nagusia denean kontsumitzaileei produktuak eta ondasunak saltzea JEZen epigrafe hauetakoren batean:

6443 Txikizkako merkataritza: gozogintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinak.

6444 Txikizkako merkataritza: izozkiak.

6445 Txikizkako merkataritza: bonboiak eta karameluak.

645 Txikizkako merkataritza: ardoak eta denetariko edariak.

651 Txikizkako merkataritza: ehungintzako produktuak, jantzigintza, oinetakoak, larruak eta larruzko artikulua.

6511 Txikizkako merkataritza: ehunkiak, etxeko jantziak, alfonbrak eta antzekoak, eta tapizak.

6512Txikizkako merkataritza: jantziak eta kapeluak.

6513Txikizkako merkataritza: arropa zuria eta kortseteria.

6514Txikizkako merkataritza: mertzeria eta paketeriako gaiak.

6515Txikizkako merkataritza: jantzi bereziak.

6516Txikizkako merkataritza: oinetakoak, larruzko gaiak eta imitaziokoak edo ordezkooak, gerrikoak, diru-zorroak, zorroak, maletak eta denetariko bidaia gaiak.

6517Txikizkako merkataritza: larruzko jantziak.

6522Txikizkako merkataritza: drogeriako gaiak, lurrinak, kosmetikako gaiak, garbiketako gaiak, pinturak, bernizak, disolbatzaileak, paperak eta dekoraziorako beste produktu batzuk, eta produktu kimikoak.

6523Txikizkako merkataritza: lurringintzako eta kosmetikako produktuak eta norberaren higienarako eta garbitasunerako gaiak.

6524Txikizkako merkataritza: landareak eta belarrak belar dendetan.

6531Txikizkako merkataritza: altzariak (bulegokoak izan ezik).

6532Txikizkako merkataritza: material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak eta elektratresnak, eta etxeko bestelako aparatuak.

6533Txikizkako merkataritza: tresnak, burdindegiko gauzak, apaingarriak, opariak eta erakartzeko gauzak (imitaziozko bitxiak eta elektratresna txikiak barne).

6534Txikizkako merkataritza: eraikuntzako materiala eta saneamenduko gaiak eta altzariak.

6535Txikizkako merkataritza: ateak, leihoak eta pertsianak, moldurak eta markoak, tarimak eta mosaiko-parkeak, saskiak eta kortxozko artikulua.

6536Txikizkako merkataritza: brikolajeko artikulua.

6539Txikizkako merkataritza: etxeko ekipamendurako gaiak (bisg).

6545Txikizkako merkataritza: mota guztietako makineria (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).

657Txikizkako merkataritza: denetariko musika tresnak eta haien osagarriak.

6592Txikizkako merkataritza: bulegoko altzariak eta bulegoko makinak eta ekihoak.

6593Txikizkako merkataritza: medikuntzako, ortopediako, optikako eta argazkigintzako aparatuak eta tresnak.

6594Txikizkako merkataritza: liburuak, egunkariak, paper gauzak, idazteko gauzak, marrazteko gaiak eta arte ederretako gaiak.

6595Txikizkako merkataritza: bitxiak, erlojuak, zilarrezko gauzak eta imitaziozko bitxiak.

6596Txikizkako merkataritza: jostailuak, kirol gaiak, kirol janzkiak (jantziak, oinetakoak eta kapeluak).

6597Txikizkako merkataritza: haziak, ongariak, loreak eta landareak eta animalia txikiak.

6598Txikizkako merkataritza: sex-shop deritzenak.

b) Enpresaburu autonomoak, mikroenpresak edo enpresa txikiak izatea, Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren 2,2 eta 2,3 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri (erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz).

c) Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egoera erregularizatuan egotea eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak beteta izatea.

2. Hori dela eta, bete beharreko gainerakoaz gain, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxieneko baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duen edozein agiri.

Ez dira kontuan hartuko, ezta onartuko ere, horiek betetzen ez dituzten erakundeek aurkeztutako eskabideak.

10. artikulua. Programari atxikitako establezimenduak

Deskontuak Arabako Lurralde Historikoan dauden eta Euskadi Bono Comercio / Euskadi Bono Denda programari atxiki zaizkion saltegieta aplikatuko dira (Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Agindua, EAeko merkataritza sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko Euskadi Bono Comercio / Euskadi Bono Denda programa arautu eta deitzen duena).

Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak Arabako Lurralde Historikoan onartutako eta baztertutako establezimenduen zerrendaren eta aplikatutako bonuen banaketaren berri emango dio Arabako Foru Aldundiari.

Era berean, establezimendu eskatzaileei jakinaraziko die onartzen diren ala ez, eta esleitutako deskontu bonuen kopurua.

11. artikulua. Deskontu bonuen banaketa

Establezimendu bakoitzari eman beharreko deskontu bonuen kopurua lineala izango da, eta jaulkitako bonuen kopuruaren (28.128 bonu) eta programari atxikitako Arabako Lurralde Historikoko establezimenduen kopuruaren arteko erlazioak zehaztuko du. Hala ere, programa garatzen den aldiaren erdian egiaztatzen bada atxikitako establezimenduren batek ez duela bere bonu erabilgarrien gutxieneko bat erabili, Jarraipen Batzordeak establezimendu horretarako erabilgarri dauden bonuak, erabili ez direnak, murriztu ahal izango ditu, eta bonu mota hori eskura dezaketen establezimenduen artean birbanatu.

Arabako Foru Aldundiak ez du bere gain hartuko 28.128 bonu baino gehiago emateko aukera.

Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak programa hori gauzatzeko lankidetzeta hitzarmena sinatu eta hurrengo hogeiei egunen barruan, foru erakundeak kudeatuko diren laguntzen funtsen zenbatekoaren ehuneko 90 Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak adierazitako kontuan sartuko du. Une horretatik aurrera, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera funtsen gordailuzaina izango da, eta gordailuzainak gordailu zibilean dituen zaintza betebeharrak bere gain hartzen ditu, Kode Zibilaren 1758. artikuluan eta hurrengoetan araututakoak.

Gainerako ehuneko 10a programa garatu ahala eta programa amaitu aurretik sartuko da, aplikatzen diren deskontudun salmenta eragiketen arabera.

12. artikulua. Bona trukatzeko funtzionamendu eta kudeaketa sistema

1. Dirulaguntzen programa plataforma teknologiko espezifiko baten bidez eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak deskontu bonuaren funtzionamendurako dituen edo kontratatzen dituen aplikazio informatikoen bidez kudeatuko da.

2. Plataforma horren bidez egingo dira deskontu bonuak jaulki, lortu, aplikatu, trukatu eta konpentsatzeko eragiketekin lotutako izapide guztiak.

3. Kanpainari atxikitako saltegiek erabiltzaile eta pasahitz pertsonalizatuak izango dituzte plataforman sartzeko, eta bertan eskuragarri izango dituzte esleitu zaizkien deskontu kupoiak.

4. Kupoi bakoitzak zenbaki espezifiko bat izango du, zenbaki bakarra, eta atxikitako saltegiarekin lotuta egongo da.

5. Atxikitako establezimenduak deskontu kupoiak eskaini ahal izango dizkie bezeroei, betiere arau honetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

6. Saltegi atxikiak noiznahi izango du eskuragarri erabilita eta erabiltzeko dauden kupoiei buruzko informazioa kanpaina indarrean dagoen bitartean.

7. Programari atxikitako establezimenduek astero ordaindu eta kobratu ahal izango dituzte aplikatutako deskontu bonuak.

8. Saltegiak erabilitako bonu bakoitza formalizatu beharko du plataforman, eroslearen NAN zenbaki bati lotuta, eta erosketa txartelaren kopia bat erantsi beharko diote egiaztagirri gisa.

Establezimendu atxikiaren erantzukizuna izango da emandako NANaren zenbakia eroslearena dela egiaztatzea.

Deskontu bonuak establezimenduek eurek aplikatuko dituzte ondasunak eskuratzeko unean.

9. Betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, atxikitako saltegiei dagokien zenbatekoa likidatu eta ordainduko zaie, horretarako eman duten banku kontuan.

13. artikulua. Programari atxikitako establezimenduen betebeharrak

Atxikitzeko eskaeraren bidez programari atxikitako establezimenduek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Establezimenduaren kanpoaldean programari atxikita dagoela adieraziko dute, dagozkion publizitate materialak jaso eta ageriko leku batean jarrita.

b) Erosleei ez zaie inola ere dirua eskudirutan itzuliko.

c) Deskontu bonu bakoitzari lotutako NAN zenbakia erosketa egiten duen pertsonari dago kiola egiaztatzea.

d) Funtzionamendua eta prozesuari eta, oro har, kanpainari buruz duten iritzia egiaztatzeko harremanetan jartzeko aukera emango dute.

h) Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzara bidali arte gordeko dituzte jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten erosketa bonu eta ordainagiri edo faktura guztiak, Arabako Foru Aldundiak egiaztatu eta kontrolatu ahal izan ditzan.

14. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

1. Lankidetzaren hitzarmena sinatzen duen erakunde laguntzaileak honako ekintza hauek garatzeko konpromisoa hartzen du:

a) Kanpainaren kudeaketan laguntzea, parte hartzen duten saltegiekin harremanetan jartzeko bidea izatea haien atxikimendua artikulatzeko, eta haren ondorioz hartutako konpromisoak behar bezala garatzen direla kontrolatzea.

b) Programaren berri ematea bere web orriaren eta bere beste bitarteko batzuen bidez.

c) Erakunde interesdunei informazioa eta laguntza ematea, kanpainari atxikitzea formalizatzeko.

d) Funtsen gordailuzain eta banatzaile izatea, bonuak banatzeko eragiketarako koordinatuz hobaridun salerosketa eragiketetan.

e) Deskontu bonuei dagozkien zenbatekoak ordaintzea programari atxikitako enpresaburu autonomoei eta mikroenpresei eta enpresa txikiei.

f) Kontuan gordetako funtsak programarako zuzen erabiltzen diren kudeatzea, kontrolatzea eta gainbegiratzea, sinatutako hitzarmenarekin eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiak erakundeari emandako jarraibide espezifikoekin bat etorritik.

g) Kudeatutako guztiaren berri ematea sinatutako lankidetzaren hitzarmenean adierazitako txostenen bidez.

2. Aurreko klausuletan adierazitako konpromiso eta betebeharez gain, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak betebehaz hauek hartzen ditu bere gain:

a) Arabako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 14. artikuluan adierazitako betebehaz guztiak, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak egokitzat jotzen dituen egiaztapen guztiak onartuko ditu, jarduketak garatu eta gauzatzeari dagokionez.

b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan xedatutakoa betetzea, zehazki honako hauek jasotakoa: 3. artikulua, berdintasunaren arloko printzipio orokorreari buruzkoa; 16. artikulua, estatistikei eta azterlanei buruzkoa; 18.4 artikulua, edozein euskarritan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistari buruzkoa; eta 23. artikulua, haietako zuzendaritza eta kide anitzeko organoetan emakumeek eta gizonek, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izanik, ordezkaritza orekatua izateari buruzkoa.

c) Finantza-ketaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea, bai eta finantza-keta hori Arabako Foru Aldundiaren ardurapean dagoela ere.

3. Debekatuta dago saltegiei diskriminazio edo tratu desberdina ematea, bereziki kontuan hartuta establezimendu elkartua den edo ez, bai eta saltegia zein elkartetakoa den ere.

15. artikulua. Programaren indarraldia

Programa horren indarraldia ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta indarrean jarraituko du 2020ko abenduaren 31ra arte, egun hori barne.

Programa amaitzeko data horren ondoren, deskontu bonuek balioa galduko dute deskontu gisa.

Programa horri lotutako funts publikoak aurreko paragrafoan adierazitako data baino lehen agortzen badira, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak egoera horren ebazpena eman beharko du.

16. artikulua. Ikuskapena eta ez betetzeak

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapenak, ikuskapenak eta gainerako kontrol neurriak egiteko eskubidea, baliabide publikoak behar bezala aplikatzen direla zaintzeko eta programa horren garapena eta aplikazioa egiaztatzeko.

Atxikitako establezimenduek ez betetzeren bat egiten badute, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak bertan behera utzi ahal izango du haien atxikimendua programari, eta horren berri eman ahal izango dio erakunde laguntzaileari, deskontu bonuak trukitzea eragozteko.

Atxikitako establezimenduek Arabako Foru Aldundiak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedea fiskalizatzeko eskatzen dieten informazio guztia eman beharko dute.

17. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin

Ebazpen honen babesean lortutako dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuek emandako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekina.

18. artikulua. Datu pertsonalak

Kanpainari atxikitako txikizkako establezimenduen eta bonuen onuradunen datu pertsonalak Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko Laguntzak izeneko tratamendu jarduerari erantsiko zaizkio eta bertan tratatu. Datu pertsonalen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa) eta 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) ezarritakoaren arabera egingo da.

19. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak ebartziko ditu.

20. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauexek arautuko dute: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araubide Ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontua arautzen duen foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerrako arauak.

II. ERANSKINA

Dirulaguntza lerroa: A Plana. Merkataritza bonuak.

Ardatz estrategikoa: Arabako ekonomiaren hazkundera eta enplegua.

Saila: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila.

Aurrekontu partida: 2020ko aurrekontuko 30.5.02.3601.480.00.01 A Plana. Merkataritza bonuak.

2020	GUZTIRA
281.280,00	281.280,00

Dirulaguntzaren xedea: txikizkako establezimenduetan ondasunen kontsumoa sustatzea, Arabako Lurralde Historikoko enpresaburu autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txikiek gauzatuta.

Onuradunak: Familiak.

Emateko prozedura: Dirulaguntza ematea atxikitako txikizkako saltegietan ondasunen kontsumorako.

Dirulaguntzaren oinarrizko lerroak: Atxikitakoek 10 euroko deskontu bonuak eskaintzen dituzte, gutxienez 30 euroko erosketetan, ondasunak erosteko unean. Arabako Foru Aldundiak finantzatzen du deskontu hori. Deskontu bonu erabilgarriak (28.128 bonu) modu linealean banatzen dira atxikitako saltegien artean.

Baterako finantzaketa:

Jarraipen erregimena eta adierazleak:

- Atxikitako saltegien kopurua.
- Bonuak erabiltzen dituzten bezeroen kopurua.